

## PINUA

*Lenago artan aritza, pagoa, lizarra, urkia, altza, ezkia ta olakoak ziran gere mendien apaingarri; gaztaiñeak ere ba zekarren jateko aski, negurako batez ere. Baiña dala gizaldi bat bezela, gaitza agertu zitzaien, gaitz makurra, ta Bizkaia -n ta Gipuzkoa-n bereziki, ía osorik galdu zitzaizgikun. Gizonak e7e, beste aldetik, —asegaitza izan— aizkoraz eten gabe suntsitu zizkigun milloika. Eta berririk landatu gabe... Piñua etorri zan gero, Bizkaia-n berariz. «Urre berdea» deritzaigu oneri.*

**Doirne K.** Enbeita-ren «Mendiko alaitasuna...».

Zugaitza beti, edozein dala,  
osasungarria zaigu,  
ikatz airea kalte zaiguna  
ordegai (1) biurtzen digu;  
piñu ugari etxetik urbil  
landatzen baldin ba duzu,  
ez izan, otoi, zalantz izpirik  
biriki gaitzik eztuzu.

Gora dezadan Lekaitio-ko  
Yartza-ko Adan jaun ona,  
gure mendiak piñuz apaindu  
zizkigun zaldun gizona,  
nik ere umetan, oso errime,  
ezagun izan nuena.  
Txalo areni zarta ozentsu,  
alaber ere esker-ona.

---

(1) Oxigenu.

Sarri esan da piñua motza  
dugula, arrotz-tantaia;  
litekena da, baiña ala ere,  
aitor dezagun egia:  
gure ingurua zugaitz gaberik  
ala zugzaitez jantzia,  
—illerra ala toki alaikor-  
ote bizitzeko obia?

Itxusi duzu mendia billoiz  
tontor, malda ezer gabe;  
tengo zugaitzak, aritz, gaztaiña,  
pago mordoska ta beste,  
gaitzak zizkigun eraman zalui (2)  
mendiai ekarriz kalte,  
bazterrak utziz larru ta elkor  
ezeren erruki gabe.

Metro erdi ez zugaitzik gabe  
nere aitak oi zun esan,  
larre-sasirik ez dugu, orde,  
bear itsuki iñondikan;  
dela gaztaiña, naiz dela pago,  
naiz piñu zernai motatan,  
guztiak eurrez dakarzkigute  
euri, bero, poz aukeran.

Gure basoko aritzak ere  
gaitzez ondatu zirean,  
beste askotxo amil zituzten  
aizkoraz jorik lurrean.  
Eta bestorduz aberats aski  
zitzaigun euskal larrean  
axola gabe indartu zan bai  
sasi-otea narean.

---

(2) Bizkor.

Nere aitak ez zuen orrela  
basoak larri, tristeki,  
iñolaz ere ikusi gura  
ta piñua zun ipiñi;  
esanak esan, gure mendiak  
gaur dute onik nasaiki,  
irabazia eman digute  
zur ta egurrez ederki.

Ez esan beraz neri gezurrik,  
piñuak ez dira motzak,  
asko dituzu oso apaiñak,  
goraka beren kukutzak;  
azkar eta izai, ítxas-piñuak,  
larizio ta alertzak,  
saillean guri zero-miñazten  
dizkigute, bai, biotzak.

Nere piñuak aize babesa  
daukate, ta lur gizena;  
oraindio ez dute gaixorik,  
insignisa dut onena,  
ardura aundi gabe, igartzeka,  
gorantz egiten duena.  
Besteak beste, auxe zait neri  
guztitarik betorrena (3).

M·Unan mordo ederrak ditut  
nerea dudan lurrean,  
azpi-adarrak moztu nizkien  
bost urteko ziranean;  
orain dauzkat sail ikusgarriak,  
denak taju bikaiñean:  
poza dakartet, barneko poza,  
igandez begiratzean.

---

(3) Ugariena.

«Urre berdea» esaten die  
mendian dugun lerrari,  
orrelaxe da izanik ere  
tantai sendoak ugari:  
egur ta zurez ogei urtetan  
poztutzen du nekazari,  
diruz ederki lagundurikan  
baserriko etxeari.

Egia diot: etxeko lanaz  
ongi dator ler-txanpona,  
neretzat beintzat gezurtia da  
aintzin-gibelka diona.  
Pagoak eder, aritzak obe,  
gure lurren jariona,  
baiña jorian piñuak dakar  
gure ziskura gauz ona.

## ONE IL ZAIGU

*fajo geranok iltzea zor dugu. Sandia, bear bada, bestea  
baiño geiago biziko da; ala ere, guztiok mundu au laga ta  
besterako bidea artu bear; ez dago besterik. Gure amona,  
nere ama, larogetaz urtetan gurekin, nere aurrekoen egoitz  
onetan bizi izana, alzo goizez il zitzaigun. Eta gaur lurra  
emon diogu. Anima tez gorputz bego atsedean betean.*

**Doiñu:** «Argi-azkorrian jinik...».

Begi-bizi, malgua zan  
gure amonatxoa,  
eztizko parra goxotan  
zeukan beti aoa;